



2021/02/24

Gandasegi Ikastetxea, Galdakao

## Galdakaoko Emakumeen Etxearen sorrerarako partaidetza prozesua: 2. saioan jasotako emaitzak

Bigarren saio honen helburua, **Galdakaoko Emakumeen Etxearen sorrerarako partaidetza prozesuaren talde eragile definitiboa osatu eta Etxeak izan beharreko filosofia, printzipio eta ezaugarrien inguruko lehen hurbilpen bat egitea** izan da. Talde eragile definitiboa osatzean, aurreko saiotik hona kide berriak batu direnez, hauei ongietorria egin, prozesuan kokatu bat eta taldearen elkar-ezagutza eta kohesioa sustatzeko saiakera egin da.

### BERTARATUTAKO ERAGILEAK:

- Erabide
- Zainduz
- Bigite
- Mairi
- Eleak
- Ernai
- Momoak
- Basandere
- Norbanako modura agertutakoak

### SAIOAN ZEHAR LANDUTAKOAK:

#### 1. PROZESUAREN AURKEZPENA

Saioa hasi aurretik **prozesuaren kokapen labur bat** egin da ordura arte izandako ibilbidea kontatuz. **Orain arte, prozesuaren aurkezpen bat eta Berdintasun Kontseiluarekin lehen saio bat egin dela azaldu da, azaroan**, lehen oinarriak jarri eta prozesu honetan egon behar duten emakumeekin osatutako talde eragile bat sortzen hasteko. Izan ere, saio honetan ere ikusi **zen talde eragile anitz eta zabalago bat osatzeko beharra** zegoela, Galdakaoko Emakume gehiagorengana iritsiz. Helburu horrekin, taldekideen arteko kontaktazio lan bat adostez gain, prozesua herrira zabaltzeko ekimen ezberdinak diseinatu eta martxan jarri ziren Udaletik. Honela, Otsailaren 4ean aldakaoztarrei **prozesuaren berri eman eta Galdakaoko emakumeei prozesuan parte hartzeko deialdia egiteko prentsaurreko bat** egin zen. Aldi berean, **Udalaren webgunean prozesuaren berri emateko espazio bat sortu** zen, herritar orok prozesuaren jarraipena egin eta talde eragilean parte hartu ez arren, bere ekarpenak egin ahal izateko.

Behin prozesuak izandako ibilbidearen kokapen hau eginda, **2. saio honetan zer landuko genuen azaldu** zen: Etxearen **filosofia, printzipio eta ezaugarriekiko lehen hurbilpen bat**, alegia.

## 2. PARTAIDEEN AURKEZPENA

Kide berriak zeudenez, hasi aurretik **aurkezpen erronda bat** egin da. Borobilean partaide bakoitzak bere **izena, nondik zetorren eta saiora nola zetorren** azaldu du.

## 3. GIROTZE DINAMIKA

Saioan buru-belarri sartu aurretik taldekideen arteko harremanak lantzen hasteko musika baliatuta **elkar ezagutza eta kohesio dinamika bat** egin da.

Taldekideak espaziotik musikaren erritmora ibili dira, musika geratzean gertuen zeukaten pertsonarekin elkartu eta dinamizatzailerik proposaturiko gaien inguruan elkarrizketa bat izan behar izan dute. Hauek izan dira elkarrizketarako gaiak:

1. Duzun amets bat kontatu elkarri.
2. Beste pertsonak zure inguruan ezagutzen ez duen zerbait kontatu elkarri.

*Denbora faltagatik ezin izan dira geldialdi gehiago egin.*

## 4. EMAKUMEEN ETXEAREN FILOSOFIA LANTZEN HASI

Galdakaoko etorkizuneko Emakumeen Etxeak izan beharreko filosofiaren inguruan hausnartzen hasteko, 4-5 **pertsonako taldetan** jarri eta talde bakoitzak **collage bat** egin behar izan dute, ondoko galderei erantzunez: **Nolakoa izan beharko luke Galdakaoko Emakumeen Etxeak? Ze elementu izan beharko lituzke?** Honela, collage-aren bidez, Etxea **modu sinboliko batean** irudikatzen saiatu dira, horretarako argazkiak zein mezu idatziak ere erabiliz.

Behin talde guztiak haien collage-a egin ostean **beste taldeei aurkeztu** die.



Aipagarria izan da **talde guztietan nahiko elementu berdintsuak** atera direla. Hauek izan dira, laburbilduz eta ideia orokorretan erreparatuz **ateratako elementuak**:

- Zentzumenen bidez bizitzekoa izatea
- Gertukoa
- Partekatzekoa
- Saretzekoa
- Ikastekoa
- Aitzindarien bisibilizazioa ematea
- Elkar-gunea izatea
- A por todas, por todas, TODAS\*
- Euskara hizkuntza erreferentea izatea
- Antiarrazista eta dekoloniala
- Gorputzak
- Zaintza
- Autogestioa eta burujabetza
- Komunitatea
- Aniztasuna
- Espazio propioa
- Heziketa eta formakuntza
- Askatasuna
- Babesa
- Aholkularitza
- Sexualitatea
- Hartzaindegia
- “Reivindicar lo vieja”



## 5. ETXEAREN PRINTZIPIO ETA EZAUGARRIEKIKO HURBILPENA, BEHARRETATIK ABIATUZ

Aurreko saioan ateratako elementuetatik eta banatutako zein web-gunean zintzilikatutako beharren koadernoetan jasotakoetatik, Etxeak jaso beharreko printzipio, ezaugarri, landu beharreko gai edo eskaini beharreko zerbitzu batzuk identifikatu eta saiora eraman dira, bertan lantzeko:

- Feminista
- Ahalduntzailea
- Sareak sortzeko gunea
- Ahispatasuna
- Anitza (gazteak, migranteak, adintsuak...)
- Interseksionalitatea
- Espazio seguru eta atsegina
- Erreferentzia puntua
- Autoezagutza eta autozaintza
- Dibertsioa, sorkuntza, aisia
- Indarkeria matxista
- Sexualitatea
- Aholkularitza
- Memoria historiko feminista
- Amatasuna

Identifikatutako elementu hauei gehitzeko beste elementu batzuk ere identifikatu dira saioan bertan, batzuk collagetatik eta besteak emandako eztabaidetatik ateraz:

- Gorputza
- Euskara
- Justizia feminista
- Maitasun eredu hegemonikoa

Aldi berean, **elementu hauek sailkatu eta ordenatzeko lehen saiakera** bat ere egin da, honako irizpide hauen arabera:

- Etxeak izan beharreko **ardatzak edo printzipioak**
- Etxeak izan beharreko **ezaugarri nagusiak**
- Etxeak landu beharreko **gaiak**
- Etxeak eskaini beharreko **zerbitzuak**

Hala ere, egindako sailkapen proposamen hau **hurrengo saioetan kontrastatzen jarraitu beharko da**. Izan ere, **hemen jasotako kontzeptu guzti hauen inguruko hausnarketa eta eztabaida bat ematea falta da, nola ulertzen ditugun partekatu, adostu, eta kontzeptu hauen garapen diskurtsibo partekatu bat eraikitzeko**. Hau hurrengo saioan egingo litzateke eta posible da, kontzeptu bakoitzari ematen zaion arabera, hemen proposatzen den sailkapenean beste modu batera kokatu behar izatea.

Dena dela, hona hemen egindako **sailkapen proposamena**. Argitu behar da, bertan, saioan egindako antolaketaz gain, **collage ariketatik ateratako elementuak ere txertatu** eta dokumentu honetan jasotzen den sailkapenean gehitu direla gerora:

ETXEAREN PRINTZIPIOAK EDO ARDATZAK	ETXEAK IZAN BEHARREKO EZUGARRIAK	BERTAN LANDU NAHI DITUGUN GAIETAKO BATZUK	ETXEAK ESKAINI BEHRAKO LITUZKEEN ZERBITZUAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Feminista</li> <li>• Ahalduntzailea</li> <li>• Sareak sortzeko gunea</li> <li>• Anitza (gazteak, migranteak, “adintsuak”, aniztasun funtzionala, hizkuntza aniztasuna<sup>1</sup>...)</li> <li>• Intersekzionala</li> <li>• Ahizpatasuna</li> <li>• Euskara erreferentziako hizkuntza</li> <li>• Antiarrazista eta dekoloniala</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erreferentzia puntua</li> <li>• Espazio seguru eta atsegina</li> <li>• Espazio propioa</li> <li>• Gertukoa</li> <li>• Partekatze, sareteko eta komunitatea sortzeko</li> <li>• Ikasteko lekua</li> <li>• Zentzumeneren bidez bizitzeko</li> <li>• Askatasunezkoa</li> <li>• Babesa sustatzeko</li> <li>• Irigarria</li> <li>• Autogestioa eta burujabetza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Indarkeria matxista</li> <li>• Sexualitatea</li> <li>• Memoria historiko feminista</li> <li>• Gorputza</li> <li>• Zaintza</li> <li>• Maitasun eredu hegemonikoa</li> <li>• Intersekzionalitatea</li> <li>• Amatasuna<sup>2</sup></li> <li>• Autoezagutza eta autozaintza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aholkularitza zerbitzuak (sexualitatea, indarkeria matxista, aholkularitza juridikoa...)</li> <li>• Heziketa eta formakuntza</li> <li>• Dibertsioa, sorkuntza, aisia</li> <li>• Hautzaindegi zerbitzua</li> </ul>

<sup>1</sup> Etxearen erreferentziako hizkuntza euskara izango den arren, beste hizkuntza batzuetan mintzatzen diren emakumeengana ere Etxea irekia egongo dela bermatzeko, hizkuntza aniztasuna kontuan izateko puntu bezala jaso da.

<sup>2</sup> Kontzeptu honen inguruan eztabaida egon da eta hurrengo saioan eztabaida honetan sakontzen jarraitzeko utzi da, izan ere, gehienek gai bezala landu litekeela uste duten arren, batzuek ez lukete Etxeari dagokion dokumentuan lantzeko gai nagusien artean jarriko. Hala ere, amatasunarekin zer landu nahi dugun eta nola ondo argitu beharreko kontua litzateke.

## 6. SAIOAREN EBALUAZIOA ETA ITXIERA

Saioa ebaluatu aurretik, hurrengo saioaren data eta ordutegia adostu dira.

Horrez gain **jakinarazi da saio honetara gerturatu den jendeak osatzen duela Emakumeen Etxearen partaidetza prozesuan parte hartuko duen talde eragile definitiboa**. Honela, saio honetara bitarteko data arte (otsailak 24), prozesuan parte hartu eta talde eragilean egoteko interesa agertu dutenek, saio hauetara etortzeko aukera izango dute, baina data hau baina beranduago iristen direnek ezingo dute jada talde eragilerara sartu. Izan ere, landutakoarekin aurrera egin eta sakontzen jarraitzeko talde finko bat izatea behar da.

Dena dela, oraindik ere **prozesuaren jarraipen bat egin eta beren ekarpenak helarazi nahi dituztenek, Udaleko web-orrian sortu den prozesuaren atalaren bidez** (eta hor ezarritako email kontaktuaren bidez) egin ahal izango dute.

Azkenik, saioaren ebaluazioa egiteko hitz bat eskatu zaie partaideei eta besteak beste, honakoak aipatu dira: produktiboa, interesgarria, ilusioa, emakume gazte feministekin egoteko aukera...

### HURRENGO SAIOA:

**MARTXOAREN 24a, asteazkena, 18:30-20:30**

**GANDASEGI IKASTETXEAN**